

Dolareak badu bere jolas-parke inklusiboa

Azken eguneratzea: Osteguna, 12 Urtarrila 2023 13:40

Argitaratua: Osteguna, 12 Urtarrila 2023 13:40



ASPACE elkarteko gurasoekin hasitako elkarlanaren emaitza da, behar bereziak dituzten hurrei egokitutako jolasak ezezik, Beasaingo gainerako hurrei zuzendutako eskaintza bereizgarria ere bada

Hobekuntza eta mantenu lanek duten garrantziari jarraiki, orain gutxi arte eremu baztertu eta degradatua zen Dolarea parkea biziberritzeko helburua bete du Udalak. Akupuntura urbanoaren filosofiari jarraiki, espazio honetan esku-hartuz ikusgarritasun eta balio erantsia eman zaio guneari, aisialdirako erreferentzia leku bihurtu delarik. Proiektuaren ildo nagusiak ezarri zituen herritarren parte-hartze prozesu baten ondoren, Udal gobernuaren mugarri handienetako bat gauzatu da.

Honela bada, espazio publiko irisgarri, balioaniztun eta integratu berri honi falta zitzaion azken elementua jarri da. Hain zuzen ere eta ASpace elkarteko gurasoek egindako eskaera abiapuntu izanda, haur-jolas inklusiboak parkean kokatzea. Elkarteak parkearen ondoan du

Dolareak badu bere jolas-parke inklusiboa

Azken eguneratzea: Osteguna, 12 Urtarrila 2023 13:40

Argitaratua: Osteguna, 12 Urtarrila 2023 13:40

egoitza eta erabiltzaileentzako mesedegarria izango den azpiegitura hau eraikitze prozesua amaitu da. Hori horrela, udal agintariak instalazioa aurkezten izan dira ASPACEko ordezkari, erabiltzaile eta hauen familiartekoei.

Hauen proposamena jaso zuenean, haur-jolas inklusiboak parkean kokatzeko erabakia hartu zuen Udalak. Izan ere, orokorrean nahiko urriak dira desgaitasun maila desberdina duten haurrentzat egokiak diren jolasak. Gaur egin den aurkezpenean bi aldeak pozik agertu dira eraiki den jolas parkearen emaitza ezagututa.

Edozein kasutan, jolas gunen berriaren helburuak elkarteko erabiltzaileen beharretatik haratago doaz, beasaingo gaztetxo orori jolas eskaintza bereizgarri bat eginez. Horrela, gunek ohe-elastiko multzoa du -hiru borobil banakakoak, taldetxoentzako karratu bat eta gurpildun aulkientzat moldatuta dagoen laukizuzen bat-, sehaska itxurako kolunpio inklusiboa eta gurpildun aulkien erabiltzaileek gozatu ahal izango duten errota.

Harrera ezin hobia

Espazio eraberrituak harrera ezin hobia izan du. Udan bereziki, egun sargoritsueta gaztetxoek soberako erabilera eman diote ur-jolasei. Orain, parkearen zelai gunen batean aurreikusi eta prestatutako jolas inklusiboen parkea gauzatu da, urte guztian zehar gozatu ahal izango dutena. Datozen asteetan jolas-guneko argiteria indartuko da gauez ere erabilpen baldintza egokian egon dadin.

Trenbide eta Ixabel Olano parkeak

Dolareakoa ez da haur parkeei lotuta burutuko den obra bakarra izango. Trenbide kalean dagoen haur parkeak duen berritze premia ikusita, Dolarea parkean egin direnei batuko zaie. Kasu honetan, gunearen eskaintza txirrista, kolunpio, txirrindudun errota eta eskalagarriak diren kubo erako egitura batzuek osatuta egongo da. Jolas parke eraberritu hau otsailean prest egotea espero da. Aldi berean, Ixabel Olano parkeko eraberritze lanek ere bere bidea jarraitzen dute non parkeko jolas gunea goitik behera eraberrituko den. Bertako elementu nagusiak sokazko piramide bat eta txirristadun kautxozko menditxoak izango dira.



Dolareak badu bere jolas-parke inklusiboa

Azken eguneratzea: Osteguna, 12 Urtarrila 2023 13:40

Argitaratua: Osteguna, 12 Urtarrila 2023 13:40
